

Great Wine Capitals
Global Alliance of Wine of Excellence
www.greatwinecapitals.com

ekitaldi
BEREZIAK

GUGGENHEIM BILBAO

ekitaldi korporatiboetarako ESPAZIOAK



ATRIOA

Kide Korporatiboei Museoko hainbat espazio erabiltzeko aukera ematen zaie lan-bilerak, aurkezpenak, ekitaldi sozialak eta bestelako enpresa-ekitaldiak antolatzeko.

Atrioa: Museoaren benetako bihotza da eta Frank O. Gehry-ren arkitektura-diseinuaren gune garrantzitsuenetako bat. 55 m-ko altuera eta 900 m² inguruko azalera du, eta aretoetara eta kanpoko terrazara joateko pasabide nagusia da. Museoeko Atrioa afariak eta ekitaldiak antolatzeko leku aparta da: 400 pertsona hartu ditzake eserita gala afarietan eta kokteletan 800 pertsona zutik. Bestelako ekitaldiak antolatzeko ere egokia da: sari-banaketak, aurkezpen komertzialak, eta abar. Museoa jendearentzat itxita dagoenean erabil daiteke.



ATONDOA

Atondoa: 330 m²-ko azalera du eta 300 bat pertsona har ditzake zutik. Entzungelaren eta Atrioaren ondoan dagoenez, lekurik aproposena da Entzungelako ekitaldi baten osagarri gisa ekitaldi sozial bat antolatzeko. Koktel baterako ere egokia da, gonbidatu gutxiago badaude. Museoa jendearentzat itxita dagoenean erabil daiteke.

Entzungela: Haren ezaugarriak direla eta, bilerak, prentsa aurkezpenak eta kultur ekitaldiak antolatzeko gunerik egokiena da. 300 pertsona har ditzake eta sarbide berezita du, erakusketa-aretoetarako sarreratik aparte. Ikus-entzunezko sistemak aukera zabala eskaintzen du ordenagailu bidezko aurkezpenak, bideo eta zinema euskarriak erabili ahal izateko. Edozein egunetan, edozein ordutan erabil daiteke.



ENTZUNGELA

GUGGENHEIM BILBAO

LIBURUTEGIA



Hezkuntza Gunea: Espazio balioanitza da, bi solairutan banatua. Ekitaldi berean 40 pertsonako bilera eserita eta gehienez 80 gonbidatuko koktela antola daitezke. Bestetik, Espazio hau edozein egunetan, edozein ordutan erabil daiteke, bertan eskola-tailerrak programatuta daudenean izan ezik.

Liburutegia: Gune eroso eta bildua da, Frank Gehryk diseinatutako altzariak dituena. Gehienez 30 pertsonako bilerak har ditzake. Liburutegia edozein egunetan, edozein ordutan erabil daiteke.

Museoaren ordutegia: astearte-igandea, 10:00-20:00; astelehenetan irekita uztaila eta abuztuan.

HEZKUNTZA GUNEA

